

ALTZA! PORRU!



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte
L.G.: 55-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2004ko uztaila / 13. zenbakia

CARLO RIZZO IRAKASLE-LANETAN

Carlo Rizzo pandero-jotzaile italiarra gurean izan da, eta bi pandero-ikastaro eman ditu joan den hilabetean. Bata, Bilboko Kafe Antzokian, ekainaren 11n, eta bestea, berriz, Zarautzen, Elkartearen egoitzan bertan, ekainaren 12an. Egun bakarreko bi ikastaro hauetan hogeita zazpi lagunek parte hartu dute guztira. Bilbon hemezortzi lagun bildu ziren, eta Zarautzen, berriz, bederlatzi. Hiru bat orduko ikastaroak izan dira biak ala biak, eta izena emandako lagunak gustura aritu dira Carlo Rizzorekin, teknika berriak ikasteko aukera izan baitute, lagunartean.

Venezian jaio zen Carlo Rizzo musikaria, 1955ean, eta 18 urterekin deskubritu zituen Italiako *Tamburello* eta Veneziako *Tammorra* teknikak, artean gaztetxoak zelarik. Bi teknika hauek bere kasa lantzen joan zen, eta pixkanaka-pixkanaka, musikaren mundura hurbildu zen. Bestalde, nahiz eta jaiotzez italiarra den, 1984tik Frantzian bizi da. Bizilekuak bizileku, mundu guztian eman ditu kontzertuak Carlo Rizzok, eta hainbat estilo ere jorratu ditu: estilo tradizionala, jazz eta musika garaikidea, esate baterako. Orain dela hamabost urte, 1989an hain juxtu, kaleratu zuen bere lehen diskoa eta dagoeneko hogeita hamaika disko ditu argitaratuta. Hamabost urteko ibilbidean egin duen lan eskerdari erreparatuz gero, beraz, argi dago musika alorrean eskarmentu handiko gizona dela ekainaren 11 eta 12an gure artean izan dugun musikari hau.

Esan bezala, panderoaren inguruko hainbat teknika desberdin irakasten jardun du Euskal Herrian, eta, hain zuzen ere, panderoaren munduan egin duen ekarririk nabarmenena pandero politinbrikoa eta pandero multitinbrikoa (tamburello politinbrikoa eta tamburello multitinbrikoa) asmatu eta fabrikatzea izan da. Honekin batera, instrumentu hauek jotzeko teknika ere garatu du. Instrumentu horiei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko tekniken berri emateko asmoz izan da Bilbon eta Zarautzen, eta aurrerantzean ere bere presentziaz gozatzeko aukera izatea espero dugu.



Bilboko Kafe Antzokian



Zarautzen

NAFARROAKO TRIKITIXA EGUNA

Nafarroako Trikitixa Eguna ekainaren 20an ospatu zen, **Barañainen**. Nafarroan zazpigarren urtez ospatu dute trikitixari eskainitako egun hau. Urtez urte herri desberdin bat aukeratzen dute, eta aurten Barañaini tokatu zaio. Ospakizun honen harira, bezperan, ekainaren 19an, Barañain bertako auditorioan Kepa Junkerak eman zuen kontzertua, jendea Trikitixa Egunerako puntu-puntu jartzeko.

Barañaina hurbildutakoek egitarau bete-betea izan zuten, trikitixaz bete behintzat bai. Goiz goizetik herriko kale eta

bazterrak trikitixaz ziprztindu zituen trikitilarien kalejirak. Ondoren, egunari ondo eusteko, eta batez ere indarberritzeko, bazkaria izan zuten guztiek, eta bazkariko pozarekin zoratuta, seiak aldean, triki-poteoari ekin zioten. Azkenik, oraindik ere dantzarako eta dibertimendurako gogoia zuten guztiei zer dantzatua eta zer kantatua eskaintzen Gozategi taldea arduratu zen, arratsaldeko zazpietatik aurrera. Egitarauari begiradaxo bat emanda, ez dugu uste bertara hurbildutako inork aspertzeko betarik izango zuenik.

AURTENGO EKITALDIAK

Inpernuko Poza.Trikitixaren II. Jardunaldiak

Aurten ere, urterokoari jarraiki, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak ekitaldi sorta antolatua du. Ekitaldi gehienek aurreko urteetan zedarritutako bideari jarraitzen diote, eta horren adibide garbia dugu, esate baterako, Inpernuko Poza. Aurtengoak trikitixari eskainitako **bigarren jardunaldiak** izango dira. lazkoaren bide beretik, irailan izango dira trikitixaz hausnarketa egiteko parada eskaintzen duten hitzaldiak, **irailaren 27tik 30era, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean**. Arratsaldeko **zazpietan** izango dira egunero.

Trikitixa Jaialdia Bilbon

Nazioarteko Trikitixa Jaialdiaren bezperan, **azaroaren 26an** alegia, Bilboko **Kafe Antzokia** trikitixaz beteko da. Donostiako Nazioarteko Trikitixa Jaialdian parte hartuko duten musikari kanpotarrak izango dira bertan, eta hori gutxi ez balitz, beste trikitilari batzuk ere gonbidatuko dira, jaialdia bete-betea izan dadin.

Nazioarteko Trikitixa Jaialdia

Nazioarteko Trikitixa Jaialdiak udazken bete-betean jotzen du atea, eta trikitixazale ororen barrena pozten. Urteroko moduan, Donostiako **Kursaal** izango du trikitixak bere habi. Aurten hirugarren aldiz ospatuko da Nazioarteko Trikitixa Jaialdi hau, eta data ere finkatuta dago dagoeneko: **azaroaren 27a**, larunbata. Usadio zahar eta berriko, hemengo eta hango ikusi eta entzuteko aukera ezin hobea da, trikitixa gustuko baduzue behinik behin.

Soinuaren Liburutegia: 5.alea.

Soinuaren Liburutegia saila ere ari da pixkanaka zabaltzen, datorren ale hau bosgarrena baita, Faustino Azpiazu Sakabiri eskainitakoaren ondotik. Oraingo honetan **Xabier Gantzarain** azkoitiarrak paratuko du Joxe Mari Soraluze **Epelderi buruzko liburua**. Agi denez, pertsonaia bakoitzeko idazle bat aukeratzen da eginkizun honetarako.

Joxe Mari Soraluze Epelde 1914an jaio zen Azkoitiko Muno baserrian. Soldadutzatik bueltakoan ezkondu zen Epelde baserrira, eta orduantxe hartu zuen Epelde ezizena. Egia esan, etxetik datorkio muskarako joera, aita, Julian Munoa, dultzaineroa baitzen. Epeldek soinua hartu zuenean Kandido Begiristain bandako zuzendaria izan zuen irakasle.

Urtetan hainbat erronomia toki ezagutu ditu Epeldek, Azkoitia inguruan batez ere: besteren artean, Martirietan, Oletan, Santan Isabelen, Atzerrekan, Oinatzen, Aginetan eta Aizpurutxon ibilia da. Hauetako askotan dantza lotuaren debekua puri-purian zegoen garaian, gainera. Bere ohiko pandero-jotzailea Egurrola zen.

1973an omenaldia jaso zuen Azpeitian, Egurrola, Auntxa, Bittarte, Arbe, eta Migel eta Joxe Mari Iturbiderekina batera, Trikitilari Egunean hain zuten. 1970. hamarkadan Donostiako Trinitate Plazan antolatzen ziren txapelketetan parte hartu izan zuen, Egurrolarekin orduan ere. 1971tik 1974ra urtero atera ziren, eta 1972an bigarren saria jaso zuten. Lehenengo saria Joxe Mari Soraluze Epelderen semeek osatzen zuten bikoteak lortu zuten.

Bere diskorik ez dugu esku artean, ez baitzuen halakorik grabatu, baina behin baino gehiagotan Loiolako Herri Irratian izan zen grabatzen. Gaur egun bizirik dago, 90 urterekin, eta burua argi dauka. Kontu kontari aritzeko oso jarrera ona azaltzen du, gainera. Mintzagai dugun Epelde hau kontuan hartuta, hiru belaunaldi dira soinu-jotzailearen izen berberarekin. Famatuena gaur egun Joxe Mariren semea da, Tomas, Epelde eta Larrañaga bikote ezaguna osatzen duena. Horretaz gain, Joxe Mariren biloba batek ere soinua jotzen du. Belaunaldiz belaunaldiko kate sendoa ikusita, ondorengorik ez zaio falta behintzat trikitixari hainbeste ekarri egin dion gizon honi.



Epelde eta Egurrola ageri dira argazkian, 1973an Azpeitian ospatu zen Trikitilari Egunean. Egun horretan trikitilari egin zitzairen omenaldia, bikote hau tartean

DISKO BERRIAK

Imuntzo eta Beloki: GANBARAN BAI

Imuntzo eta Belokik *Ganbaran bai* disko berria Urola bailaran garai bateko erromerietan jotzen ziren trikiti pieza zaharrak berreskuratu eta grabatu dituzte. Bi helburu jakin betetzen ditu lan honek. Batetik, Urola bailarako hainbat trikitalariren lana gogora ekartzen du, eta, bestetik, azken berrogei urte hauetan grabazio-lanetan aritu den jendeari omenaldia egiten dio; euren lanik gabe disko honek ez baitzuen argirik ikusiko.

1960. hamarkadaren hasieraz geroztik Loiola Irratiak egindako grabazioak ditu diskoak oinarri. Joxe Mari Iriondo irratia sortzearekin bat hasi zen han eta hemengo trikitalariak grabatzen, eta, horri esker, Laja eta Beizamako Motzak, Sakabik, Epeldek, Zabaletak eta beste hainbatek grabatutako trikiti piezak bildu dituzte. Guztira 23 pieza grabatu dituzte. Gehienak kalejirak, fandangoak eta arin-arinak dira. Hala ere, lehengo erromerietan dantza lotuan ere egiten zutenaren isla, bals, pasodoble, tango eta fox-trot bana gehitu dituzte. Era honetan, **lehengo erromeriak nolakoak ziren jakiteko** balio du lan honek.

Grabazioetako datuak osatzen hainbat lagunek lagundu diete. Hala nola, Epeldek, Lajak, Zabaletak, Iriondok eta Ansorenak. Diskoan bertan Jimmy Arrabitek bere garaian oso ohikoak ziren perkusio-tresnak jo ditu. Besteren artean, txinatar kaxa, trikitiaren maleta eta botila. Esme eta Gotzone Sestorainen irrintziak ere entzun daitezke. Letrei dagokienez, koplak zahar batzuk berreskuratu dituzte, eta hala lau kantu osatu; Iturbide, Landakanda eta Juliana Zubizarretari esker.



Kukuma taldea: KUKUMA

Kukuma erromeria-talde bizkaitarrak euskal folklori doinu latinoak eta etnikoak gehituz, disko berria kaleratu du. Hiru lagun izatetik bost lagun izatera pasatu dira eta izena ere aldatu egin diote taldeari, Sorbeltz zena Kukuma bihurtuz. Victor Gomezek (baxu elektrikoa eta kontrabaxua), Ruben Isasik (trikitia, txirulak, txalaparta eta perkusioa), Jose Llorachek (bateria, darbouka eta surdoa), David Nanclares (gitarra, mandolina eta cavaquinho), Pottokik (ahotsa) eta Xabier Valle (alboka, uilleann pipes, gralla eta whistlea) osatzen dute Kukuma. Lehen lana sortzeko, hiru musikariren laguntza izan dute. Jean Bernabe Moussayou angolarrak lingaleraz abestu du zenbait kantutan, Travis Flint estatubatuarrek scratch-ak egin ditu, eta Ruben Llorach murtziarrak batasuna eman dio perkusioari.

Elkarlanean-en eskutik argitaratu dute diskoa, eta **aire berriak** dakartza. Euskal instrumentu tradizionalak eta bestelako tresnak nahastu dituzte zenbait abestitan: whitleak, mandolinak, covanquinho-a, eta bouzoki-ak dira tresnaberri horietako batzuk. Erritmo beroak, doinu zeltak eta instrumentu tradizional etnikoak abildade handiz uztartzen dituzte, eta hortik hainbat eratako melodiak sortu: erritmo latinoak, afrikarrak, reggae, funk eta runbak tartean. Mugarik gabeko nahasketa horretatik lan alaia eta dantzagarria sortu da.



Epelde eta Larrañaga: AGUR

Epelde eta Larrañaga bikoteak *Agur* izeneko diskoa atera berri dute, Elkar argitaletxearen eskutik. Disko bizi, koloretsu eta freskoa. Duela bost urte elkartu ziren eta orduz geroztik hiru disko kaleratu dituzte: Elkarren ondoan (1999), Noiz arte (2001) eta oraingo hau, Agur (2004).

Hamalau kantuk osatzen dute diskoa, eta Kantu alaiak eta festa giroa nabarmentzen dira. Horren adibide, pasodoble, rantxera, arin-arinak, fandangoak eta kalejirak entzun daitezke diskoan. Gainera, Larrañagak jarritako letretan sarri agertzen da 'festa' hitza bera. Kantuan, Bihotz Gorospe, Juan Mari Narbaiza eta Xapre izan dituzte lagun. Gotzone Sestorainek irrintziak egin ditu, eta perkusioez Iñigo Egia arduratu da. Josu Salbide, berriz, zapata eta dultzainarekin aritu da.

Epelde erromeria tradizionalari loturik egon den trikitalaria izaki, aurreko bi diskoetan bezalaxe, hemen ere kutsu herrikoia azaleratzen da. Bere bikote Anjel Larrañaga, berriz, bertsolaritza klasikoaren adibide garbia dugu. Dena den, Larrañagak bertso-doinuak sortzeko duen zaletasunari jaramon eginez, letrak ez ezik, hainbat melodia ere plazaratu ditu oraingoan, Iker Allur produktorearen laguntzarekin. Epelderen doinuak ere ez dira falta, jakina, diskoan. Hirugarren disko hau perkusioz jantziagoa dago, nolabait, eta trikitia, panderoa eta ahotsaren azpitik erritmo bizia ematen du perkusioak. Disko alaia da, dantzagarria eta entzungarria, bikote honek berezkoa duen graziaren lekuko.



LIBURU BERRIAK

Lurtarra da begiratu

Jexux Zulaika *Beoteri* eskainitako liburu da honakoa, eta Xabier Etxabek idatzi du, familiako oroitzapenetan oinarrituta. Aitona zuen Xabier Zulaika, eta bera ardatz hartuta, Zarautz eta Aia inguruko kontakizunak eta gertaerak gogora ekarri dizkigu, Elkar argitaletxearen eskutik argia ikusi duen bere lehen lanean.

Jexux Zulaika, Beote, soinu-jotzailea zen eta iaz zendu zen. Berak kontatutako pasarteak biltzen ditu lan honek, eta horregatik, bere garaiko trikitalariak eta orduko erromerien giroaren zertzeladak dakartzate hainbat orrialdek.



HAUSPO ZAHARRAK



1975eko martxoaren 16an Zarautzen ospatutako IV. Trikitilari Eguneko une bat islatzen du argazki honek. Primi Erostarbe donostiarra panderoarekin, eta Fermin Eizmendi oiartzuarra soinua lagun duela, beren saioa eskaintzen ari dira. Urte hartan Primi Erostarbe eta Fermin Eizmendi, Txantxangorri, ez ezik, Lazaro Larrañaga soinu-jotzaile azpeitiarra eta Leandro Unzueta pandero-jotzaile azkoitiarra ere omendu zituzten.

KALEJIRAN

-Alaitz eta Mainer trikitilari bikoteak **webgunea** estreinatu dute sarean. Trikitilari hauei buruzko informazioa nahi izanez gero, beraz, baduzue beste euskarri bat gehiago kontuan hartzeko. Hona hemen helbidea: www.alaitzetamaider.com. Helbide horretan sartuz gero, beren biografia, diskografia eta argazkiak ez ezik, trikitilari hauei buruz prentsan ateratakoa, emanaldien agenda eta estekak ere izango dituzue eskura.

-EHTEK beste atal bat gehitu dio bere webguneari, **Trikitixa Entzun** atala alegia. Hilabetero bost grabazio ezberdin izango ditu nahi duen orok sarean. Uztailari dagokionez, honako grabazio hauek daude entzungai: Asteasuko Tapia eta Alegiko Juan (1971), Epelde anaiak (1976), Luis Astiasaran (1980), Rufino Arrola (1993) eta Zumarragako trikitixa (1995).

-Irailaren 18an **Zerain dantza zain** erromeria izango da, eliza atarian, seietatik aurrera.

GALBAHEA

-**Juan Mari Beltran** (Berria, 04-03-21): "Hasteko, niri iruditzen zait ezinezkoa dela tradizio bat iraun araztea jarrera kontserbadorea baldin badugu. Tradizioa baldin badago, tradizioa egin duten horiek jarrera ausarta izan dutelako da".

-**Iker Goenaga** (Oarsoaldeko Hitza, 2004-V-14): "Niretzako zaila da fandango bat era zaharrean asmatzea, beti imitazio txar bat irudituko zait. Beraz, sortzeko garaian saiatzen naiz zerbait berria egiten. Nik zer porta dezakedan, hori da abiapuntua".

-**Esteban Larrañaga** (Otamotz herri aldizkaria, 2004-02): "Berriro ere txapelketaren kontura heldu naiz, baina beharrezko akuilua dela uste dut. Jaialdiek eta erromeriak geroz eta indar gutxiago dute eta telebistak ere trikitixa indartuko duen ezer egiteko gogo handirik ez du".

AGENDA

ABUZTUA

Alaitz eta Mainer

1ean, Arbonan (L), plazan, 17.30ean; **2an**, Oiartzunen (G), plazan, 23.30ean; **7an**, Irunen (G), Mosku plazan, 23.00etan.

Jainaga eta Narbaiza

1ean, Diman (B), Artaun auzoan, 22.00etan.

Kepa Junkera

1ean, Hampshire-n (Ingalaterra), Eastleigh Jaialdian; **2an**, Londonen (Ingalaterra), Sidmouth Jaialdian; **7an**, Sodupen (B).

Tapia eta Leturia

1ean, Algortan (B), San Nikolas Plazan; **4an**, Beran (N), Alzateko plazan, 00.00etan; **13an**, Denia-n (Valentzia); **15ean**, Azkainen (L), plazan, 21.00etan.

Trikizio

1ean, Lizarran (N), 23.00etan; **6an**, Errazkinen (N), 23.00etan; **7an**, Oñatin (G), 23.00etan; **8an**, Hendaian (L), 20.00etan; **13an**, Uztartzen (N), 23.00etan; **14an**, Goizuetan (N), 23.00etan; **15ean**, Gabirian (G), 23.00etan.

Urgabe

2an, Gordexolan (B); **5ean**, Beran (N); **6an**, Marurin (B); **7an**, Erandion (B), Astrabuduan; **14an**, Erandion (B), La Campan; **15ean**, Dorraon (N), Sakanan.

Zure

10ean, Bellver de Cerdanya-n (Lleida), 12.30ean.

Triki ta ke

14ean, Zizurkilen (G).

Gozategi Taldea

15ean, Zeanurin (B), plazan.

Mallabiako Trikitixa Eskola

15ean, Mallabian (B), 12.00etan.

Abuztuaren 15etik aurrerako trikitixa-emanaldien berri trikitixa.net webgunean duzue.